ZIUR FUNDAZIOAREN ZIBERSEGURTASUNERAKO AUTOEBALUAZIO-SISTEMAREN OSTATATZEA ETA MANTENTZE-LANAK BERRITZEARI BURUZKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ZIUR2022046 ESP.)

1. AURREKARIAK

ZIUR Fundazioaren egoitzan, E-Qualify izeneko autoebaluazio-tresna erabiltzen da, merkatuan autoebaluaziorako mekanismo fidagarri eta kontrastatu bat izateko, eta metodo hori hutsetik garatu beharrean, lan hori azkarrago eta modu eraginkorragoan egiteko.

Lehenengo instalazioa 2019an egin zenez, beharrezkoa da irtenbidearen ostatatzea berritu eta segurtasun-kontrolen mantentze-lanak eguneratzea, zerbitzuak martxan jarraitu ahal izan dezan.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Datozen bi (2) urteetan zibersegurtasuneko E-Qualify autoebaluazio-irtenbidearen ostatatzea eta mantentze-lanak berritzeko kontratua arautuko duten baldintzak zehaztea da Baldintza Teknikoen Agiri honen helburua.

3. KONTRATUKO PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

Beharrezkoa da E-Qualify-ren mantentze-lanak berritzea. Hauek dira bere ezaugarriak:

- **24 hilabetez SaaS ereduan ostatatzea**

- **Metodologia-bertsioa eguneratzea**

  2019an instalatu zenetik, LEET Security kalifikazio-metodologiaren bertsio berri bat liberatu dute (gaur egun, 3.1 bertsioa dago indarrean). Bertsio berri horren bidez, neurriak teknologiaren egungo egoerara egokituko dira, eta, halaber, ebaluatutako kontrolen antolaketa eta egitura hobetuko dira.

  Zehazki, hauek izango lirateke metodologia berriarekin egingo liratekeen aldaketak:

1. Estandar berrien mapaketa eta gaur egongo estandarren bertsio eguneratuak. Estandar jakin batzuk agertzean eta/edo garrantzia hartzean, estandar horiek mapaketen atalean sartzea gomendatu dute.
2. Erabilitako terminoen izendapena berrituko da:
3. ‘[SD.05] Gestión de Vulnerabilidades’ atala “Operación de sistemas - SO” domeinura pasako da.
4. Zenbait kontrol txertatuko dira pribatutasun-politikak betetzearekin lotutako ataletan.
5. Autentifikazio arloko azken joerak txertatuko dira.

6. Pribatutasunaren kalifikatzaile gehigarria (orain ‘PRIV` deitua) esleitzeko mekanismoa eguneratuko da.
7. Gorabeherak jakinarazteko eskaera hobetuko da.
8. ‘Desarrollo seguro [SD]’ ataleko kontrolak hobetu dira
9. Bezeroei zuzendutako balio-katearekin lotutako kontrolak ‘Cumplimiento - [CO]’ domeinuan kokatuko dira.
10. Telelanarekin lotutako neurriak hobetuko dira (SO.07)
11. Segurtasunarekin lotutako praktikak edukiontzietan sartuko dira ‘[SO.05] atalean.
12. Informazio-sistemetarako segurtasun-errekerimenduak
13. SDP - Software Defined Perimeter-ekin lotutako neurriak txertatuko dira sareko kontrolei buruzko atalean (NC).
14. Zero konfiantzaren (*zero trust*) printzipioak hartuko dira kontuan ‘[SO.05] – Informazio-sistemetarako segurtasun-errekerimenduak’ atalean.
15. Irtenbideen osagaien “jatorriari” buruzko neurriak txertatuko dira hirugarrenen domeinuan [TP].
16. Arrisku mota horiek estaltzeko zibel-poliza bat izateko beharrari buruzko baldintza berria [RE.06] atalean.
17. Kriptografiaren kudeaketan parte hartzen duten profesionalen formakuntzari buruzko baldintza berria.
18. Segurtasun fisikoari buruzko Tier 5’ moduko neurri aurreratu berriak gehituko dira erresilientziari (RE) eta segurtasun fisikoari (FS) buruzko domeinuetan.
19. SOAR (Security Orchestration, Automation and Response) teknologiekin lotutako baldintza berriak.
20. ATT&CK (Adversarial Tactics, Techniques, and Common Knowledge) erreferentziak txertatuko dira.
21. ASVS (Application Security Verification Standard) estandarraren aipamena ‘Garapen segurua- [SD] domeinuan
22. Praktikak Kontrol Industrialeko Sistemen inguruneetara egokituko dira.

Donostian, 2022ko abenduaren 15ean

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

72724351F
KOLDOBIKA PECIÑA
(R: G75203067)

Digitalki sinatuta norengandik:
72724351F KOLDOBIKA PECIÑA
(R: G75203067)
Data: 2022.12.19 08:34:04
+01'00'

Koldo Peciña Txintxurreta